

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Osasun alorreko jarduera-ildo nagusiak aurkeztu ditu

*Vera kontseilariak ildo horiek alor horretako profesionalei eta langileen ordezkariari azaldu dizkie gaur*

Jueves, 25 de agosto de 2011

Osasun Departamentuko kontseilari Marta Vera Janin-ek zenbait bilera egin du gaur goizean Nafarroako Ospitale Guneko, Tuterako eta Lizarrako Mediku eta Erizaintza Zerbitzuen zuzendariekin, Nafarroako Osasun Zentroko zuzendariekin, eta langileen ordezkariekin, Osasun Departamentuak egungo legealdian lan egingo duen jarduera-ildo nagusiei buruzko azalpenak emateko, eta bere zuzendaritza-talde berria aurkezteko.



Ezkerretik eskuinera. Ruth Vera, Sanz Barea, Vera kontseilaria, Sada eta Iribarren, bileretako batean.

Verarekin batera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari Ángel Sanz Barea eta departamentuko beste arduradun batzuk izan ziren.

Kontseilariak talde berria aurkeztuz eman dio hasiera agerraldiari eta aurreko taldeari "emandako laguntza guztia eta guztiek egin dioten harrena ona" eskertu dio. Ondoren, egungo legealdia zuzenduko duten jarduera-ildo nagusiak "bizi dugun testuinguru ekonomikoaren barnean" kokatu nahi izan ditu. Verak azpimarratu duenez, "Nafarroako Gobernuak jarri duen helburu nagusietako bat, Yolanda Barcina Lehendakariak bere inbestidurako hitzaldian aurreratu zuenez, defizit publikoa kontrolatzea da". Helburu hori, gainera, Espainiako Gobernuak eta Europar Batasunak inposatu ditu.

Jarraian, Osasun Departamentuan epe ertainean lan egiten hasiko diren jarduera batzuen berri eman du hitz gutxitan.

Lehenik eta behin, adierazi duenez, "gaixoari orientatutako osasungintza baten paradigma errealitate bihurtu nahi dugu. Ondo informatutako gaixoa, bere zainketan arduratsua dena, eta prebentzioko jokabidea duena da osasun-politikaren muina. Gaur egun, osasun-kontsumitzailea osasun-zerbitzuen erabiltzaile izan daitekeen edozein pertsona da: gaixoa, gaixotasunik gabeko pertsona edo familiar bat. Beste edozein kontsumitzaile modura, osasun zerbitzukoak kalitate, zerbitzu eta erabakitze botere handiagoa eskatzen du". Kontseilariak azpimarratu du Nafarroako Osasun Zerbitzuak Gaixoari Arreta Emateko Zuzendaritza

berri bat jartzen duela herritarren esku, "eta baliabide zehatzak jarriko dituela gaixoei eta haien inguruneak sentitutako beharrak sartzeko jokabide proaktiboari euste aldera".

Jarraian, Osasun Departamentuan epe ertainean lan egiten hasiko diren jarduera batzuen berri eman du hitz gutxitan.

Lehenik eta behin, adierazi duenez, "gaixoari orientatutako osasungintza baten paradigma errealitate bihurtu nahi dugu. Ondo informatutako gaixoa, bere zainketan arduratsua dena, eta prebentzioko jokabidea duena da osasun-politikaren muina. Gaur egun, osasun-kontsumitzailea osasun-zerbitzuen erabiltzaile izan daitekeen edozein pertsona da: gaixoa, gaixotasunik gabeko pertsona edo familiar bat. Beste edozein kontsumitzaile modura, osasun zerbitzukoak kalitate, zerbitzu eta erabakitzeko botere handiagoa eskatzen du". Kontseilariak azpimarratu du Nafarroako Osasun Zerbitzuak Gaixoari Arreta Emateko Zuzendaritza berri bat jartzen duela herritarren esku, "eta baliabide zehatzak jarriko dituela gaixoei eta haien inguruneak sentitutako beharrak sartzeko jokabide proaktiboari euste aldera".



Bileretako batera bertaratutako pertsonak.

Verak hitz egiten jarraitu du, eta gogora ekarri du "guztiok jakitun garelako krisialdi ekonomiko sakon batean gaudela. Gure erronka nagusia, eta berehala heldu beharko dioguna da gure osasun-sistemaren iraunkortasuna bermatzea. Nafarroako osasun publikoaren sinesgarritasun eta bikaintasun-maila handia izateko, epe labur eta ertainean, hobeto kudeatzeko eta, jakina, erabateko eraginkortasuna lortzeko gaitasuna izan behar dugu", nabarmendu du.

Nafarroako Gobernuak baliabideak optimizatzeko egin beharreko plan bat garatzeaz ere aritu da, antolaketako eta neurri ekonomikoak sustatuko dituena. "Lehen adibide modura aipa dezaket, Nafarroako Ospitale Gunearen berrantolaketa-prozesuaren amaiera klinika-kudeaketako eredu batean oinarrituta; Lehen Mailako Arreta Hobetzeko Plana Osasuneko funtsezko gune guztietara hedatzea; Osasun Mentaleko Plan berri bat inplementatzea; eta printzipio aktibo modura preskripzioa sustatzea Nafarroako Osasun Zerbitzu guztian", aipatu du Verak.

Bestalde, adierazi du "Nafarroako osasungintzak osasun-profesional bikainak dituela, eta ulertzen dutela azken urteotako erronka garrantzitsuenetako baten aurrean gaudela. Gu guztion ardurak da elkarrekin lan egiten segitzea -testuinguru eta egoera zailtan bagaude ere-, herritarrek egiazta dezaten arreta ona ematen segitzen zaiela. Hain zuzen, gure arloan, profesionalen arloan, berehala lan egiten hasiko gara kudeaketa-sistemen sorkuntzan eta mantenimenduan sartzeko; hala, itzarote-zerrendak maila egokietan geldituko dira, eta ardurak partekatzeak gure helburuak betetzera eramango gaituzte.

Kontseilariak adierazi du, gainera, Foru Gobernuak komunikabideak eta parte hartzeko etengabeko sistemak era iraunkorrean eta etenik gabe sortuko dituela. "Gauzak beti zuen parte-hartzearekin eta erabateko gardentasunez egin daitezela nahi dugu", azpimarratu du.

Azkenik, Verak azaldu duenez, departamentuak prozesuen modernizazioa jorratuko du IKTak Lehen Mailako Arretan eta Espezializatuan era integralean sartuz. "Herritarren arreta hurbilduko dugu teknologia berriak erabiliz (telemedikuntza), edo telematika-tresnak erabiliz arreta eta kontroleko eskaera-maila altuena duten herritar-taldearen jarraipen eraginkor bat izateko (gaixo kronikoak)". Alderdi hori ere nabarmendu du, hots, errezeta elektronikoa Nafarroa guztira hedatzea.